

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,  
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA  
Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Borinbizkarra 1. sektoreko M29 lurzatiaren xehetasun-azterketari**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko urriaren 24an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Borinbizkarra 1. Sektoreko M29 partzelaren xehetasun azterketari, nahiz eta behin betiko onespena eman aurretik dokumentazio berria aurkeztu beharko den paperean eta CD formatuan, 2025eko urriaren 16ko txosten teknikoan adierazitako zuzenketekin.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua araberak, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko txosten loteslea jaso ezean, eten egingo da behin betiko onartzeko epea.

3. Dosierri jendaurrean jartzea, hoguei egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharak aurkezterik izan dezan ere.

Dosierri Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko zerbitzuan egongo da ikusgai, Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, Vitoria-Gasteiz, adierazitako epean, ALHAOn argitaratzen denetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urriaren 27an

*Alkate-lehendakaria*  
**MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA**